

**OVIDIOREN “*AMORES. LIBER III*” TESTUAREN EUSKARAZKO
ITZULPENA**

Unai Guillen Bilbao

Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua

2014-2015

Gidor Bilbao Telletxea

Ikasketa Klasikoak Saila

Laburpena

Lan honen helburua Ovidioren *Amores* liburuaren hirugarren atala euskarara itzultzea da. Beraz, lanean topa daitekeen eduki esanguratsuen itzulpena bera da; zalantzarik gabe, lan praktikoa izan da. Itzulpena irakurle kultuei dago zuzendua, eta testua errazago ulertu eta gehiago disfrutatu dezaten, oin-ohar argigarriak erantsi dizkiot. Ovidioren bizitzaren daturik garrantzitsuenak eta haren obraren ezaugarriak ere azalduko ditut lan honetan, irakurleak testuingurua zein den jakin dezan.

Jatorrizko testua latinez dago, baina latinik ez dakidanez (ez behintzat itzulpen duina egiteko beste), zubi-testuak erabili behar izan ditut. Hala ere, latinezko bertsioa beti izan dut ondoan eta zenbait kasutan hara jo dut. Batez ere, gaztelaniazko bi itzulpenetan oinarritu naiz: bata prosaz dago, eta bestea, itzulpen askeagoa, neurtitzetan. Tutorea aditua da latinean, beraz, haren laguntza ere izan dut, eta horrela, jatorrizko testutik gaztelaniara itzultzean sortu daitezkeen galerak nolabait orekatzen lagundu dit, nire euskarazko itzulpena Ovidioren bertsio originaletik gehiegi ez urruntzeko.

Ovidioren *Amores* neurtitzetan dago idatzita. Poesia itzultzeak normalean zailtasunak ekartzen ditu, eta zailtasunen aurrean erabakiak hartu behar izaten dira. Aurrerago luzeago azalduko dudan moduan, hitz lauz itzultzeko hautua egin nuen, tutorearekin hitz egin eta gero. Horretarako, gaztelaniazko prosazko itzulpenaren egitura mantendu dut.

Itzulpena irakurle kultuei dago zuzenduta, baina ez halabeharrez mundu klasikoan eta mitologia greko eta latindarrean adituak diren irakurleei. Hori dela eta, beharrezkotzat jo dut zenbait kasutan itzulpenari oin-ohar argigarriak eranstea, erreferentzia kulturalen eta mitologikoen azalpenekin. Horrela, irakurleak hobeto ulertu ahalko du testua, eta, era berean, gehiago disfrutatu ahal izango du.

Gainera, Ovidioren bizitzaren pasarte esanguratsuenak eranstea ere komenigarria iruditu zait. Biografiarekin batera, Ovidioren lan ezagunen azalpena ere eman dut, eta *Amores* liburuaren ezaugarri nagusiak aipatu ditut. Izan ere, irakurleak errazago ulertuko du testua aurretik testuingurua zein den badaki.

Ondoren, itzulpen prozesua azaldu dut; itzultzen hasi aurreko gogoetatik itzuli ondoren egindako zuzenketetaraino. Prozesu horretan hartu beharreko erabakiak eta izandako zailtasunak ere luze eta zabal argitu ditut, betiere adibideak emanez.

Azkenik, erabili dudan bibliografia erantsi dut.

AURKIBIDEA

Sarrera.....	3
1. Ovidio eta bere lanak.....	3
2. Itzulpen-prozesua.....	4
Itzulpena.....	8
<i>Amores</i> III, I.....	8
<i>Amores</i> III, II.....	9
<i>Amores</i> III, III.....	12
<i>Amores</i> III, IV.....	13
<i>Amores</i> III, V.....	14
<i>Amores</i> III, VI.....	16
<i>Amores</i> III, VII.....	19
<i>Amores</i> III, VIII.....	21
<i>Amores</i> III, IX.....	23
<i>Amores</i> III, X.....	25
<i>Amores</i> III, XIa.....	26
<i>Amores</i> III, XIb.....	27
<i>Amores</i> III, XII.....	28
<i>Amores</i> III, XIII.....	29
<i>Amores</i> III, XIV.....	30
<i>Amores</i> III, XV.....	31
Bibliografia.....	33

SARRERA

1. Ovidio eta bere lanak

Publio Ovidio Nason Sulmonan jaio zen (Pelignia, Italia) Kristo aurreko 43. urtean eta Tomisen (egungo Costanza, Errumania) hil zen Kristo ondorengo 17. urtean, erbesteratuta. Zizeron hil zuten urte berean jaio zen, eta Zesar hil baino urtebete geroago; beraz, Errepublikaren azken urteak bizi izan zituen gaztea zela. Ovidio familia aberatsekoa zen, zalduna. Anaiarekin batera, Erromara bidali zuten erretorika-ikasle; aitaren nahia abokatu izatea zen, aurrerago Senatuan sartzeko aukera izateko. Gaztetan saio labur bat egin zuen politikagintzan, baina ez zuen gustuko izan eta poesiagintzara itzuli zen, Mesala Korbinoren taldera, hain zuzen ere. Azken horrek asko lagundu zion lehenengo argitalpenetan. Erretorika-ikasketek aztarna utzi zuten Ovidioren poesia-produkzioan. Greziara egin zuen ikasketabidaia Makro lagunarekin, eta luzaroan bizi izan zen Atenasen (cf. Bilbao, 2002).

23 urterekin hasi zen poesiagintzan, eta harremana izan zuen garaiko poeta famatuekin: Galo, Propertzio, Horazio eta Tibulorekin, besteak beste. Lehen urte horietan maitasun gaiak dira nagusi haren lanetan eta orduan idatzi zuen *Amores*, hain zuzen ere. Ovidio Erromako maitasun elegiaren aitzindarietakoa izan zen.

Geroago, gutxi gorabehera Kristo ondorengo 1. urtetik aurrera, maitasun poesiatik poesia serioago baterako trantsizioa hasi zuen. Horren adibide dira *Jai-egunak* eta *Metamorfosiak* lanak. Azken lan horrekin elegiatik epikara egin zuen salto. Kristo ondorengo 8. urtean Augustok egungo Errumaniara erbesteratu zuen eta han idatzi zituen *Tristia* eta *Epistulae Ex Ponto*, esaterako. Lan horietan etxetik urrun egoteak sortzen dion samina sumatu daiteke, eta antza denez zigorraren bidegabekeria erakutsi nahi dio munduari, berriro ere elegiara bueltatuz. Bizitzaren azken urteetan *Ibis*, *Halieutica* eta *Nux* poemak idatzi zituen, zatika ezagutzen ditugunak.

Hauexek dira Ovidioren lanak, hurrenkera kronologikoan:

- *Amores* (Amodioak)
- *Medea*: galdutako tragedia
- *Heroides* (Heroienak)
- *Ars amatoria* (Maitasun-ikasbidea)
- *Remedia amoris* (Maitasun-sendabidea)

- *Medicamina faciei femineae* (Eme-begitartearentzako sendagaiak)
- *Metamorphoses* (Metamorfosiak)
- *Fasti* (Jai-egunak)
- *Tristia* (Saminak)
- *Epistulae Ex Ponto* (Gutunak Pontotik)
- *Ibis*
- *Halieutica*
- *Nux* (Intxaurrondoak)

Amores liburua 3 liburutan dago antolatuta, eta distiko elegiakotan dago idatzita. Esan bezala, maitasun elegiaren aitzindarietako da: poeta bera proiektatzen da lanean. Obraren gai nagusiak amodioa eta sexualitatea dira, baina etengabe agertzen dira zorientasun-aldiak eta zorigaitza, susmo txarrak eta alaitasun-aldiak, eta jeloskortasuna eta poza. Horiek guztiak maitasun-harreman baten gorabeherak dira. Gainera, gai horiek ironiaz eta fribolitate-puntu batekin tratatzen ditu sarritan.

2. Itzulpen-prozesua

Hasteko, esan behar da Gradu Amaierako Lan hau ez dela ikerketa-lana, liburu baten itzulpena baizik. Beraz, lanaren muina edo zatirik garrantzitsuena itzulpena bera da. Nire ustez itzulpen-lan hau ezin da sailkatu formatu akademiko “arrunteko” Gradu Amaierako Lan gisa, hortaz, ez dauka mota horretako lanek eskatzen duten egitura bera: adibidez, lanaren emaitza ez dira ondorio jakin batzuk, itzulpena bera baizik, edo horiei buruzko gogoeta. Luzerari dagokionez ere, karaktere kopurua gainditu dut lanean (50.000-60.000), baina kontuan izan behar da Gidor Bilbao tutoreak zehaztutako testuaren itzulpenarekin solik ia kopuru horretara heltzen dela.

Ovidioren *Amores* latinez dago idatzita, eta latinik ez dakidanez (ez behintzat itzulpen duina egiteko beste), gehienbat gaztelaniazko zubi-testuetara jo behar izan dut. Hala ere, latinezko bertsoia beti izan dut eskura (Ramírez de Verger & Socas, 1991). Zubi-testuetako bat (Ramírez de Verger & Socas, 1991) prosaz dago idatzita, eta bestea (González Iglesias, 1997), itzulpen askeagoa, neurtitzetan (bertso-lerro endekasilaboak, eta noizean behin alexandriarrak eta heptasilaboak). Mahai gainean izan ditut, orobat, frantsesezko eta ingelesezko itzulpen bana, hain zuzen Bornecque 1968 eta Showerman 1914, hurrenez hurren. Gainera, tutorearen

laguntza izan dut, jatorrizkotik zubi-testuetara egon daitezkeen galerak orekatzeko eta nire itzulpena Ovidiorenetik gehiegi ez urruntzeko.

Itzultzen hasi aurretik hainbat alderdi hartu nituen kontuan. Lehenik eta behin, itzulpena nori zuzenduta dagoen zehaztu behar nuen. Poesia dela kontuan hartuta, eta tratatzen diren gaiengatik (amodioa, erotismoa eta sexualitatea) irakurle kultuarentzako lan egokia dela iruditzen zait. Hala ere, irakurleek ez dute zertan mundu klasikoan eta mitologia greko eta latindarrean adituak izan, hortaz, itzulpenari oin-ohar argigarriak erantsi dizkiot, erreferentzia kulturalen eta mitologikoen azalpenekin. Horrela, irakurleak hobeto ulertuko du testua eta gehiago disfrutatu ahalko du.

Hartu beharreko lehenengo erabakietako bat testua prosaz edo neurtitzetan itzultzea izan da. Ovidiok neurtitzetan idatzi zuen *Amores* liburua. Poesiak beti ekartzen ditu arazoak itzultzean (neurri eta errima, esaterako), eta kasu honetan liburua distiko elegiakotan dago idatzita, eta horrek ez dauka neurri baliokiderik euskal literatur tradizioan. Hortaz, tutorearen onespina jasota, *Amoresen* hirugarren liburua hitz lauz itzultzea erabaki dut. Horretarako prosazko gaztelaniazko itzulpenaren (Ramírez de Verger & Socas, 1991) egiturari jarraitu diot. Itzulpenetan beti egoten dira galerak jatorrizkoari dagokionez, eta kasu honetan galera nagusia da irakurleak ez duela poesia irakurriko, jatorrizkoan ez bezala. Dena den, uste dut itzulpena irakurtzen duenak Ovidioren latinezko liburua irakurtzen duenak beste gozatzeko aukera izango duela, lanaren edukia eta estiloa zorrotz mantentzen saiatu naizelako. Esan daiteke oro har hitzez hitzeko itzulpena egin dudala.

Estiloari dagokionez, Ovidiok oso esaldi luzeak eta sintaktikoki korapilatsuak erabiltzen ditu. Galdera asko ere oso luzeak dira. Euskaraz sorturiko literatur testuetan, normalean, salbuespenak salbuespen, ez dugu hain esaldi luzerik topatzen, baina, oro har, esaldiak ez mozten saiatu naiz, erritmoa mantendu ahal izateko. Horrek irakurketa zaildu dezake, baina, aldi berean, irakurleak hobeto sentituko du duela bi mila urteko liburu honen xarma. Hona hemen adibide bat:

Illa quidem nostro subiecit eburnea collo
bracchia Sithona candidiora niue
osculaue inseruit cupide luctantia linguis
lascium femori supposuitque femur
et mihi blanditias dixit dominumque uocauit
et quae praeterea publica uerba iuuant.

(Ramírez de Verger & Socas, 1991: 107)

Y eso que ella echó a mi cuello sus marfileños brazos más blancos que la nieve sitonia y me plantó unos besos retorcidos que luchaban ansiosamente con su lengua y puso su muslo juguetón bajo mi muslo y me dijo ternezas y me llamó su dueño y añadió esos cumplidos que tan bien sientan.

(Ramírez de Verger & Socas, 1991: 107-108)

Eta hori gertatu zen, nahiz eta nire lepoan Traziako elurra baino zuriagoak ziren bolizko besoak jarri zituen, eta bere mihiarekin borrokatzen zuten musu bihurrituak eman zizkidan, eta bere izter jostalaria nirearen azpian jarri zuen, eta hitz gozoak esan zizkidan, eta bere gizona nintzela esan zidan, eta guztiontzako atseginak diren laudorioak esan zizkidan.

(Guillen, 2015)

Esan dut galdera asko ere luzeak direla. Gehienak aurreko adibidean bezala mantentzen saiatu naiz; hala ere, zenbait kasutan, uste izan dut hobe zela galdera moztea, edo, gutxienez grafikoki (puntuazioaren bidez) beste era batean ematea, irakurleak hobeto ulertu ahal izateko:

Quid pater Ismario, quid mater, profuit Orpheo,
Carmine quid uictas obstipuisse feras?

(Ramírez de Verger & Socas, 1991: 115)

¿De qué le sirvió su padre, de qué su madre a Orfeo el de Ísmaro, de qué el haberse parado ante su canto sometidas las fieras?

(Ramírez de Verger & Socas, 1991: 115)

Zertarako balio izan zion aitak Orfeo Ismarokoari? Zertarako amak? Zertarako kantuarekin basapiztiak geldiarazi izanak?

(Guillen, 2015)

Bestalde, baliabide estilistikoei dagokionez, nabarmentzekoa da lanean topa dezakegun metaforen kopurua, izan ere Ovidiok asko erabiltzen duen baliabidea da. Oro har metaforak hitzez hitz itzultzearen alde egin dut, hots, metafora ez desegitearen alde. Uste dut metafora horiek indarra daukatela euskaraz ere, beraz, ez dut beharrezko ikusi baliokiderik topatzea:

Quid queror et toto facio conuicia caelo?

(Ramírez de Verger & Socas, 1991: 95)

¿Por qué me lamento y lanzo reproches al cielo todo?

(Ramírez de Verger & Socas, 1991: 95)

Zergatik ari naiz intzirika eta zerura kexak jaurtitzen?

(Guillen, 2015)

Gainera, erreferentzia kulturez josita dago lana. Kasu batzuetan osagai kultural horiek ez ditut euskararen kulturaren parte diren osagaiekin ordezkatu, hau da, ez ditut domestikatu. Horren ordezkari erdaldundu edo arrotz bihurtu ditut. Horren adibide da “palmondoa irabazi”. Euskaraz, irakurleek agian hobeto ulertuko lukete “txapela irabazi”; “txapela” hitza ikusterakoan “irabazleari” buruz ari garela jakingo lukete. Hala ere, garai horretan irabazleak palmondoarekin lotzen zituztenez, horrela uztea erabaki dut, oin-oharrean azalpena emanaz. Hona hemen adibidea:

“(…) ille tenet palman, palma petenda mea est.”

(Ramírez de Verger & Socas, 1991: 92-93)

“(…) aquel de allá de ha llevado la palma, mi palma está por conquistar”.

(Ramírez de Verger & Socas, 1991: 92-93)

“(…) hango horrek irabazi du palmondoa, nirea falta da”.

(Guillen, 2015)

Beraz, adibide horiekin argi ikus daiteke itzultzeko joera hitzez hitzekoa izan dela testu osoan zehar, nahiz eta kasu batzuetan aldaketak egin. Jatorrizkoari ahalik eta fidelen izaten saiatu naiz, irakurlea originalera eta haren testuingurura hurbiltzeko asmoz.

ITZULPENA

I

Urte askoan inoiz ebaki gabeko baso bat dago; pentsatzekoa da numen bat bizi dela leku hartan. Iturburu sakratu bat dago erdian, haitz zintzilikarizko kobaren ondoan, eta nonahi entzun daitezke txoritxoek kexa gozoak.

Basoko itzalen artean paseoan nabilela (nire musak inspiratutako obraren bila nabilen), Elegia hurbildu zitzaidan perfumedun ile bilduarekin eta, uste dut, oin bat bestea baino handiagoa zeukala. Itxura liraina zeukan, jantzi oso arina, maiteminduen arropa, eta oinetako arazoak ere haren edertasuna indartzen zuen.

Tragedia ere pausu handiekin hurbildu zen oldartsu¹: ileak bekoki kopetiluna estaltzen zion, tunika zoruraino heltzen zen; ezkerreko eskuak errege baten zetroa mugitzen zuen erraztasun handiz, Lidiako koturnoak ziren oinetako altuak. Lehena izan zen hitz egiten, eta esan zidan:

“Egunen batean utziko al diozu maitatzeari, zure istorioa konpontzeko ere tardatzen duzun poeta hori? Ardoz betetako oturuntzek zure nagitasuna kontatzen dute, kale askotara begira dauden plaza txikiek kontatzen dute. Sarritan baten batek pasatzen den poeta seinalatu eta esaten du: ‘hauxe, hauxe da Amodio basatiak garretan duena’. Zuri buruz ari dira txutxumutxuak, hiriko alde batetik bestera eta ez zara konturatzen, inongo lotsarik gabe kontatzen baitituzu zure balentriak. Bazen garaia tirsoak² markatutako pausoak jarraitzeko; nahikoa ibili zara alferkerian: ekin obra handiago bati. Gai horiekin talentua estutzen duzu, abestu heroien balentriak: “hau da –esango duzu– nire adorearen espazioa”. Zure musa neskato samurrek abestuko dituzten txantxeekin entretenitu zen eta zure lehen gaztetasuna komeni zitzaion erritmoan igaro zuen. Orain lor dezadan zure laguntzarekin nik, Tragedia erromatarrak, ospea: hats horrek nire legeei egingo die kasu.

Honaino mintzatu zen emakumea, eta, koturno koloredunen gainean irmo hiru eta lau aldiz mugitu zuen burua, adats sendoarekin. Beste emakumeak, ondo gogoratzen banaiz, irribarre egin zuen zeharka begiratuz (oker nago, edo eskuineko eskuan mirtozko makila bat zeukan?): “Zergatik, tragedia sutsua, beldurtzen nauzu” –esan zuen– “hitz solemneekin? Edo ezin diozu inoiz solemne izateari utzi? Hala ere erritmo aldakor batean mugitu zara; eraso egin zenidan

¹ Tragedia oldartsua da jorratzen diren gaiengatik: erresumen suntsipenak, pasio sutsuak, heriotza tragikoak.

² Tirsoa, huntz edo mahatsondo hostoez koroatutako makila, Bakoren ikurra da.

nire bertsoak erabiliz. Ez nituzke konparatuko zure kantu bikainak gureekin: zure jauregiak nire ate eskasak zanpatzen ditu. Arina naiz eta nirekin batera arina da Cupido, nire grina: ez naiz nire gaia baino saiatuagoa. Ni gabe traketsa izango litzateke Amodio³ jostalariaren ama: jainkosa horren artekaria izateko jaio naiz. Zuk koturno sendoarekin ireki ezin zenuen atea, zabaldu egin da nire hitz gozoengatik. Hala ere, zuk baino botere handiagoa merezi nuen, zure bekozkoak jasango ez lituzkeenak jasateagatik: nigandik ikasi zuen Korinak⁴, zaindaria engainatuz, ondo itxitako atari baten leialtasuna asaldatzen, ohatzetik tunika askatu batekin ihes egiten eta gauzez pausoak estropezu egin gabe ematen. Zenbat aldiz egon naizen argizaritan idatzita, ate gogorretatik zintzilik, pasatzen zen jendeak irakurriko ninduen beldur barik! Are gehiago, gogoratzen naiz, zaindari zorrotza irteten zen bitartean, neskame baten altzoan ezkutatuta eraman nindutela. Eta urtebetetzeko opari gisa bidaltzen nauzunean eta emakume basati hark indarrez apurtu eta alboan jarririko ur-ontzian sartzen nauenean? Nik piztu nituen lehenen zure buruko hazi ugalkorrak, emakume horrek orain eskatzen duena, nire oparia duzu”.

Hitz egiteari utzi zion; eta ni hasi nintzen:

“Zuengatik biongatik eskatzen dizuet gizon ikaratu honen hitzak kontuan hartzeko. Alde batetik, zetroarekin eta koturno altuarekin ohoratzen nauzu: ukitu zenuen ahotik dagoeneko doinu apartak irteten dira. Beste aldetik, nire maitasunari ospe bizia ematen diozu: beraz, etorri hona eta gehitu bertso laburrak luzeei. Tragedia, emaiouzu poetari tarte laburra: zu lan amaiezina zara; besteak eskatzen duena laburra da”.

Konbentzitu nuen eta baimena eman zidan. Amodio⁵ gozoak bizkortu daitezela denbora dagoen bitartean: atzetik obra handiago bat ari da sortzen.

II

“Ni ez nago hemen eserita arrazako zaldien zalea naizelako; halere, zuk, neskato horrek, animatzen duzunak irabaztea nahi dut. Zurekin esertzeko⁶ eta zurekin hitz egiteko etorri naiz,

³ Venus.

⁴ “Korina” izenak poetaren maitasun eta maitale guztiak biltzen ditu (Bilbao, 2002).

⁵ Kasu honetan, “Amodioak” jainkoak eta liburuaren izenburua eta gaia dira aldi berean.

⁶ Zirkuan eta hipodromoan gizonak eta emakumeak batera esertzen ziren, antzerkian ez bezala.

eragiten didazun maitasuna oharkabeen joan ez dadin. Zu lasterketei begira, ni zuri: begira diezaiola bakoitzak komeni zaionari eta nork bere begiak elikatu ditzala.

O! Zorionekoa animatzen duzun karroza-mutila, nornahi delarik ere! Beraz, hori da zure gustuko izateko zortea daukana? Ni neu izatea gustatuko litzaidake: zaldiak txabola ukiezinetik irteterakoan lasterketara egingo nuke salto, bridak askatuz, ustekin bizkarra markatuz, eta barruko gurpilekin zutoinak ukituz. Korrika ari naizela ikusten bazaitut, gelditu egingo naiz, eta nire eskuetatik jausiko dira brida askeak. Gutxi faltatu zen Pisak lantzaz Pelope jo eta lurrera hilda erortzeko zure aurpegiari begiratzen ziola, Hipodamia⁷! Baina irabazi zuen, argi dago, maitearen laguntzaz: nork bere anderearen laguntzaz irabaz dezala. Zergatik urruntzen zara alferrik? Marrak batera egotera behartzen gaitu; hipodromoak erraztasun hauek ematen dizkigu eserlekuetarako arauekin.

Tira, ez enbarazu egin nire neskari, eskumako aldean zauden horrek, zarena zarela: zure aldakarekin ukitu eta min ematen diozu. Eta zuk, espektakulua gure atzetik ikusten duzun horrek, batu hankak, lotsarik badaukazu, eta ez iezaiozu bizkarra estutu belaun zurrunarekin.

Tunika jausiegi daukazu eta lurretik daramazu arrastaka: jaso edo, hara, nik altxatuko dizut hatzekin. Jantzi jeloskorra zinen, hain hanka ederrak estaltzeagatik; eta gehiago ikus dadin... jantzi jeloskorra zinen.

Horrelako hankak, Atalanta korrikalariarenak, nahi zituen Milanionek bere eskuetan; itxura hori daukate Dianaren hankek, bildutako jantziarekin, piztia ausarten atzetik doanean, eurak baino adoretuago. Sutan nengoen ikusi gabe: zer gertatuko zen ikusi izan banitu? Sugarra botatzen diozu suari, ura itsasoari. Horiengatik susmatzen dut gustuko izango ditudala jantzi meheak ondo estaltzen dituen atalak.

Baina, bitartean, nire eskuak mugituko duen oholtxoak astinduko duen haize mantsoari egin nahi diozu dei? Edo sargori hau nirea baino ez da, nire bihotzarena, ez airearena, eta emakume batenganako maitasunak erretzen du nire bular gatibua? Hitz egiten dudan bitartean, zure jantzi zuria hauts arinaz estali da: hauts zikina, urrundu zaitetz haren elurrezko gorputzetik!

⁷ Hipodamiaren aita Enomao zen, Pisako erregea. Alaba ezkontzea saihesteko, desafioa egiten zien ezkongaei, berarekin gurdi-lasterketa egiteko. Irabazten bazuten, alabarekin ezkondu ahalko ziren, baina galtzen zutenei burua mozten zien. Pelope izan zen irabazten lehena.

Baina badator segizioa: egon adi eta isilik; txaloaren unea heldu da: urrezko segizioa dator. Hasieran Garaipen dakarte, hegoak zabalik: etorri hona, jainkosa, eta egin maitasun hau garaile. Txalotu Neptuno olatueta gehiegi fidatzen zaretenok; nik ez daukat zerikusirik itsasoarekin, nirea lurra da, babesten nauena. Txalotu zuk zure Marte, soldadu; nik gorroto ditut armak; ona da bakea eta bakealdian lortzen den maitasuna. Lagun diezaiela Febok augureei eta Febek⁸ ehiztariei; lor ezazu, Minerva, esku artisauak zuregana itzultzea. Nekazariak, altxa zaitezte Zeres eta Bako samurraren aurrean; pugilek Polux ohoratzen dute, zaldizkoek Kastor⁹. Nik zu txalotzen zaitut, Venus losintxaria, bai eta zure haurrak ere, arkuarekin boteretsuak: eman, jainkosa, onespena nire asmoei, eta alda iezaiozu nire andereari sentitzeko modua: maitatua izatea onar dezala!

Onartu du eta keinu batekin baietz adierazi du. Jainkosak hitzeman duena, zuk ere hitzemandako erregutzen dizut; Venusen baimenarekin esango dut: zu jainkosa handiagoa zara. Lekuko hauengatik eta jainkoen segizioarengatik zin egiten dizut momentu oro maitatuko zaitudala ene andere gisa.

Baina hankak zintzilik dituzu; hobeto bazaude horrela, oin-puntak eskudelean sar ditzakezu. Orain ikuskizunaren zati garrantzitsuena dator; zirkuko eraztuna hustuta, pretoreak¹⁰ etxola lerrokatuetatik irteteko agindu die koadrigei. Noren aldekoa zaren ikusten dut; zuk animatzen duzunak irabaziko du: ematen du zaldiek ere badakitela zer nahi duzun.

Gizajoa ni! Biraketa zabalean inguratu du zutoina! Zertan ari zara? Hurrengoa gurdia hurbilduz pasatzen ari da. Zertan ari zara, ziztrin halakoa? Nire neskaren nahiak hondatzen ari zara; tiratu gogor, mesedez, ezkerreko bridatik. Tentel bat animatu dugu. Baina, tira, dei egin iezaiozue berriro, herritarrok, eta egin seinalea togak alde guztietatik astinduz. Begira, berriro ari dira deika; togak mugitzen direnean ez diezazuten ilea nahasi, nirearen izurretan babestu ahal zara, nahi duzun beste. Eta berriro zabaldu dira etxolak sarrailak ireki direnean; kolore ugari zaldien tropa hegan ari da. Gutxienez, aurrera egin eta sartu uzten dizuten tartean: betearazi nire desirak, betearazi nire anderearenak. Nire anderearen ametsak bete dira, nireak falta dira; hango horrek irabazi du palmondoa¹¹, nirea falta da”.

Irribarre egin zuen, eta zeozer hitzeman zidan begi biziekin:

⁸ Febo Apolo da, eta Febe Diana, ehizaren jainkosa.

⁹ Kastorrek fama zeukan zaldizko gisa eta Poluxek boxeolari gisa.

¹⁰ Pretorea zen, edo latinez *praetor urbanus*, jokoaren burua, eta berak ematen zuen lasterketetan irteteko seinalea.

¹¹ Palmondoa zen garaipenaren ikurra.

“Hau nahikoa da; gainontzekoa emadazu beste leku batean”.

III

Tira, tira... zuk jarraitu jainkoak daudela sinisten: neskato horrek hitza jan du zin egin ondoren, eta haren aurpegia aurretik zenaren modukoa da. Adatsa gezur-zina egin aurrekoa bezain luzea da, zeruko numenak iraindu ostean ere. Aurretik zuria izan zen, gorritasun finez ñabartutako zuria: elurrezko aurpegian oraindik egiten du distira gorri biziak. Oin txikia zeukan: oin-moldeak ere oso txikia jarraitzen du izaten; altua eta ederra izan zen: altua eta ederra da oraindik. Begi biziak izan zituen, eta eguzkia balira bezala egiten dute dirdira; askotan azpikeriaz zin egiten nion neure buruari begi horietaz¹².

Jainkoek betidanik uzten diete neskatoei gezur-zinak egiten eta edertasunak botere jainkotiarra dauka. Gogoratzen dut neskatoak bere begiez eta nireez zin egiten zuela: ikusten duzu nireek sentitu zutela! Esan iezadazue, jainkoek, ea hark zigorrik gabe engainatu zintuzten; zergatik jaso nuen nik neskatoak merezi zuen zigorra? Ez daukazue arrazoirik dontzeila hori, Zefeoren alaba, gorrotatzeko; zoritxarrez, amaren edertasunaren erruz agindu zuten hiltzea¹³. Ez al duzue nahikoa niretzako baliorik gabeko lekuko izatearekin, eta neskatoak, zigorrik gabe, nirekin batera engainatu zituen jainkoen kontura barre egitearekin? Nire zigorraren bidez zin faltsuetatik aske gelditzeko, neu, iruzurgileak engainatu nauena, izan behar al naiz biktima?

Edo jainkoa errealitaterik gabeko izena da, alferrik beldur zaiona, eta inuzente eta sineskorrak hunkitzeko gai dena, edo, jainkorik egotekotan, neskato samurrak ditugu gustuko eta neskato horiek baino ezin dute egin nahi duten guztia, mugarik gabe. Gure aurka Martek gerrian jartzen du ezpata hilgarria, gainetik erortzen zaigu Palasen lantza saihetsezina, gure aurka mantso kurbatzen da Apoloren arkua¹⁴, guretzako dauka gordeta tximista bat Jupiterren eskumako eskuak; goikoak, saminduta, neskato ederrak zauritzearen beldur dira, eta eurak errespetatu ez dituztenak errespetatzen dituzte. Eta inor arduratzen da aldareetan intsentsu

¹² Maiteminduen artean ohikoa zen begiez zin egitea.

¹³ Zefeoren alaba Andromeda da. Sakrifikatu nahi zuten haren ama Kasiopearen bekatua ordaintzeko. Ama bere burua Nereidak baino ederrago jotzen ausartu zen.

¹⁴ Arkua bai Apoloren bai Dianaren ikurra zen.

jainkotiarra jartzeaz? Dudarik gabe gizonek adore handiagoa izan beharko lukete! Jupiterrek su sakratua jaurtitzen du baso eta gotorlekuetara, baina ez die dardoei uzten zin faltsuak egin dituzten neskatoak jotzen. Zenbatek merezi izan duten kolpea! Su hartu zuen Semele¹⁵ gizajoak: berak eragin zuen zigorra bere eskakizunekin; hala ere, etortzekoa zen maitalea onartu izan balu, aita batek ez zukeen Bakorentzat amarena egin beharko.

Zergatik ari naiz intzirika eta zerura kexak jaurtitzen? Jainkoek ere begiak dauzkate, jainkoek ere bihotza daukate. Jainkoa banintz, emakumeek inor engainatu barik esan ahalko lukete nire izen jainkotiarra, alferrik eta aho gezurtiarekin; nik neuk zin egingo nuke neskatoek benetan zin egiten dutela, eta ez lukete nitaz esango jainko ilun-goibela naizela. Zuk, bestalde, aprobe txatu bere neurrian eman zizuten pribilegioa, edo, gutxienez, ez berriro zirik egin nire begiez.

IV

Senar bihozgabea, ez duzu ezer lortzen neskatxa samur horri zaindari bat jartzen badiozu. Emakumeak euren izaera aintzat hartuz zaindu behar dira. Emakume bat fidela bada beldurtzen ez dutenean, benetan da fidela. Era berean, uzten ez diotelako egiten ez duenak, egiten du. Haren gorputza zaindu dezakezu, baina gogoia lizuna da, eta ezin dizkiozu desirak geldiarazi. Haren gorputza ere ezin duzu jagon, sarrera guztiak itxita ere; guztiak kanpoan utzita, barruan egongo da lizunkeria.

Bekatu egiteko bidea duenak, gutxiagotan egiten du bekatu, askatasunak berak ahultzen baititu pasioaren haziak. Utziozu, egin kasu niri, galaraziz grina txarrak eragiteari; tolerantziarekin garaituko dituzu. Duela gutxi, ikusi nuen zaldi batek bridei kontra egiten ziela setakeriaz. Tximista baino azkarrago egiten zuen korrika, eta ez zen gelditu ahoko uhala askatuta eta zurden gainean bridak libre sentitu zituen arte.

Galarazita dauzkagun horietan tematzen gara beti, eta ukatzen digutena nahi izaten dugu: debekatutako ura bilatzen duen gaixoaren moduan. Argok¹⁶ ehun begi zeuzkan bekokian eta

¹⁵ Zeusek Semele seduzitu zuen eta honek Bako sortu zuen.

¹⁶ Ehun begiko munstroa. Jupiterrek Io zaintzeko agindu zion.

beste ehun kokotean, eta guztiak burlatu zituen sarri Amodiok. Dontzeila sartu zuten Danae¹⁷ burdin eta harrizko logela sendo horretan, eta ama izan zen. Birjina mantendu zen Penelope ezkon-nahi gaztez inguratuta, zaintzailerik ez bazuen ere. Zainduta dagoena irrikatzen dugu ezer baino gehiago eta gure grina horrek erakartzen du lapurra; gutxik nahi dute ondokoak uzten duena. Emakumea ez da erakargarria duen aurpegiagatik, senarrak maite duelako baizik; uste dute ez dakit zer dagoela zu liluratzeko modukoa. Ez da zintzo egiten senarrak zaintzen duen emakumea, are gehiago, adulteriogile fin bihurtzen da; beldurrak gorputzak berak baino balio handiagoa du.

Onartu ez arren, gozamen debekatua dugu gustuko; “beldur naiz” esan ahal duen neskaxa baino ez dugu atsegin. Gainera, ez da legezkoa neskato aske bati zaindaria jartzea; beldur horrek kanpotarren gorputzei eragin diezaiela! Zaindaria “neuk lortu dut” esateko izango al da fidela emakumea, zure esklabo baten ohorerako? Oso zakarra da emazte desleial batek gogaitzen duena eta ez daki behar adina Erromari buruz, Marteren semeak, Romulo Iliaren semea eta Iliaren seme Remo, ez baitziren errurik gabe jaio¹⁸. Zergatik nahi zenuen emakume eder bat, zintzoak bazenituen gustuko? Zaila izaten da ezaugarri horiek batera topatzea.

Zentzuduna bazara, barkatu andereari, kendu aurpegi serioa, ez erreklamatu senar zorrotz baten eskubideak eta zaindu harremana emazteak emango dizkizun lagunekin (asko izango dira-eta): oso harrera ona izango duzu, ahalegin handirik gabe, gazteen oturuntzetara joan ahalko zara eta etxean zuk gainontzekoei egin ez dizkiezun opari asko ikusiko dituzu.

V

“Gaua zen, eta logurak begi nekatuak itxi zizkidan. Orduan, honako irudipen hauek espiritua ikaratu zidaten:

Eguzki-izpiek eskuzabaltasunez jotzen zuten mendixka. Behealdean, baso sakratu bat zegoen, artez beteta, eta horien adarren artean hegazti ugari ezkutatzen zen. Ingurua berde-berdea zen, [errekasto soinulariko] ur tanta samurrek bustitako zelai belartsuagatik.

¹⁷ Danae Akrisioren alaba zen, eta horrek giltzaperatuta zeukan dorre batean. Jupiter hartu zuen dorrean eta horrek urrezko euriaren formarekin ernaldu zuen.

¹⁸ Iliak birjintasuna mantendu behar zuen bestal gisa, baina Martek bortxatu zuen. Horrela sortu ziren Romulo eta Remo.

Bero kiskalgarriari ihes egin nahi nion, arbolen hostailaren azpian, baina arbolen hostailaren azpian berdin-berdin kiskaltzen ninduen beroak. Halako batean, lore askotarikoen artean belar batzuen bila ari nintzela, behi zuri bat agertu zitzaidan parez pare; elurra baino zuriagoa zen, maluta erori berriak eta denborak urtu gabekoak baino zuriagoa, ardi jetzi berriak eman duen esnearen apar zaratatsuaren zurtasuna baino zuriagoa.

Zezen bat ere bazegoen harekin, behiaren senarra, eta lur bigunean etzan zen bikote zoriontsua. Zezenak, han botata zegoela, belarra hausnartu eta berriro jaten zuen alde zurretik janda zeukana. Iruditu zitzaidan burua lurrean jarri zuela, adar eta guzti, logurak indar oro kendu balio bezala.

Bele bat heldu zen; haizekirrian hegalak leunki astinduz, lur berdean jarri eta txio egin zuen. Mokoa erabili zuen behiaren elur koloreko bularra erasotzeko. Hirutan eraso zuen behi elurra bezain zuriaren paparra, ausartasunez, eta ile-sorta zurixkak kendu zizkion. Behiak, asko pentsatu ostean, leku hura eta zezena utzi zituen. Baina paparrean ubeldura beltz bat zeukan. Urrunean zezen batzuk larrean bazkatzen ari zirela ikusi zuen (zezenak larre belartsuan ari ziren bazkatzen); haiengana hurbildu eta taldera batu zen. Belar emankorragoa zeukan lurra aurkitu zuen.

Esadazu, bada, zarena zarela, gaueko irudien iragarle horrek¹⁹, irudipen hauek zer esan nahi duten, ea egia irudien duten.”

Hori esan nuen. Eta hauxe esan zuen gaueko irudien interpreteak, nire hitzak bere gogoan banan-banan aztertuz:

“Hostaila higikariaren azpian ezkutatu alferrik saihestu nahi zenuen bero kiskalgarria maitasunak sortutakoa zen. Behia zure neskatoa da: kolore hura aproposa da zure neskatoarentzat. Zu haren gizona zinen, zezena, behia baitzen zure bikotea. Beleak moko zorrotza erabiliz bularrean eraso zuen; hori atso artekari batek zure ugazabandarearen sentimenduak aldatuko dituen seinale da. Behiak, luze hausnartu ostean, bikotea utzi zuen, hau da, zezena; horrek esan nahi du ohe hutsean bakarrik utziko zaituela, hotz. Paparreko ubeldurak eta orban beltzek adierazi nahi dute haren bihotzak desleialtasunaren akatsa daramala.”

Hori esan zuen interpreteak. Odolak nire ezpain izoztuetatik ihes egin zuen, eta nire begiek gau iluna iristen ikusi zuten.

¹⁹ “Gaueko irudien iragarlea” ametsen interpretea da.

VI

“Ibaiertz lohitsuak kanaberadiz betetzen dituzun ibai horrek (nire anderearengana noa), gelditu une batez zure ura. Ez daukazu zubirik, ezta txalupa konkaborik, arraunlariaren laguntzarik gabe, soka batekin, ertzetik ertzera eramango nauenik. Txikia zinen, gogoratzen dut, eta ez nion zu zeharkatzeari uko egin; urazala nekez heltzen zitzaidan orkatiletara: orain, oldartu egin zara ondoko mendiko elurte gogorrekin eta zulo lohietan pilatzen duzu ur lodia”.

Zertarako balio du presaka ibiltzeak, zertarako atsedean gutxi hartu izanak, zertarako gaua egunarekin batu izanak, hala eta guztiz ere hemen gelditu behar badut, eta modurik ez baldin badaukat ondoko ibaiertzean oin-plantak jartzeko? Orain falta sentitzen dut, Danaeren seme heroiak²⁰ suge ikaragarrien burua tentetu zuenean izan zituen hegoena, orain falta sentitzen dut, Zeresen²¹ haziak lehenengoz landu gabeko lurretan jauzi zireneko gurdiarena. Mirariak kontatzen ditut, antzinako poeten gezurrak: inoiz ez dira ikusi eta inoiz ez dira ikusiko.

“Hobeto zuk, zure ibaiertz zabaletatik haratago gainezka eginda zauden ibai horrek (zure jariora izan dadila beti halakoa!), eraman zure isuria zure ibilguan barrena. Jasanezina izango da, sinetsiezadazu, uharra, eragingo duzun ezinikusia, esaten badute nire moduko maitemindu bati bidea moztu zeniola.

Ibaiek gazteei lagundu beharko liekete maitasun kontuetan: ibaiek ere maitasuna zer den sentitu izan dute. Inakoren jario-lasterra zurbildua omen zen, Melia²² Bitiniakoaren erruz, eta, haren urlo izoztuetan, berotu egiten omen zen. Neerak²³ zure begiradak lapurtzen zituenean, Janto, Troiak ez zeramatzan oraindik bi bosturteko setiopean. Eta zer? Arkadiako neskato batenganako maitasun ausartak ez al zuen Alfeo²⁴ behartu urruneko lurraldeetara joatera? Zuk, Peneok, Jutoren andregai Kreusa²⁵ Ptioten herrian ezkutatu zenuela ere esaten dute.

²⁰ Danaeren semea Perseo da, Medusa gorgona garaitu zuena.

²¹ Triptolemok munduari itzulia eman zion Demeterren gurdian, gizakiei laboreak lantzen irakasteko.

²² Melia Bitiniakoa zen (Asia Txikia), Ozeanoaren alaba zen eta Inakorekin ezkondu zen.

²³ Neera Nereidetako bat da, Janto ibaiarekin maitemindu zena.

²⁴ Alfeo ibai-jainkoa da, isuria Arkadiatik Elidera daramana.

²⁵ Ovidiok Kreusa izeneko biren istorioak nahasten ditu: ninfarena (Ozeanoaren eta Lurraren alaba) eta beste Kreusarena (Erekteo eta Praxitelearen alaba eta Jutoren emaztea).

Zertarako aipatu Asopo, Martereneko Tebek²⁶ liluratu zuena, bost alabaren ama izango zen horrek? Zure adarrak non dauden galdetuko banu, Akelao²⁷, Herkulesen²⁸ esku sutuak txikitu zizkizunak, deitoratu egingo zenituzke: ez zuen hainbeste balio izan Kalidonek, ezta Etolia osoak ere, baina Deianirak²⁹ berak bakarrik hori balio izan du. Zazpi ahotan isuritako Nilo oparoko korronte famatu horrek, ur hain boteretsuaren aberria ezkututzen duenak, ezin izan omen zuen bere infernuetan amatatu Evantek, Asoporen alabak, piztutako garra. Salmoneoren alaba³⁰ siku zegoela besarkatu ahal izateko, Enipeok urari baztertzeko agindu zion: aginduari jarraituz, urak alde egin zuen.

Zu ere aintzat hartzen zaitut. Arroila harritsuaren artean mugituz ureztatzen dituzu Tibur argostarraren³¹ landak, fruituak sortuz; Tibur horren gustuko izan zen Iliia, itxura zakarrekoa izan arren adatsean zeuzkan urratuengatik, masailean zeuzkan urratuengatik. Neskatoa ortozik zihoan batera eta bestera paraje bakartietan barrena, aitaldeko osabaren sakrilegioa eta Marteren delitua deitoratzen zituela. Aniene adoretuak ur-laster bizkorretik ikusi zuen, eta, eztarri marrantatua ibitik altxatuz, honako hau esan zion:

‘Zergatik zapaltzen dituzu larriturik gure ibaiertzak, Iliia, Laomedonte idatarraren leinukoa³² zaren horrek? Non dira zure apaindurak? Zergatik zabilta batetik bestera, bakardadean, ile soltea lotuko dizun xingola zuririk gabe? Zergatik egiten duzu negar eta zergatik hondatzen dituzu malkotan blai dituzun begiak? Zergatik kolpekatzen duzu esku haserrearekin, eroturik, zure paparra? Aurpegi samurreko malkoei sorgor begiratzen dienak bularrean burdin hutsa eta suharriak gordetzen ditu. Iliia, utzi alde batera beldurra: zuretzat zabalduko da gure jauregia eta tratua izango dute zurekin ibaiek: Iliia, utzi alde batera beldurra. Ehun ninfa edo gehiagoren artean zu izango zara ugazabandrea, ehun ninfa edo gehiagok okupatzen baitituzte nire ibaiadarrak. Gutxienez, eskatzen dizut, ez nazazu gutxietsi, troiar kume horrek: nire promesak baino opari oparagoak izango dituzu’.

²⁶ Tebe Tebasko ninfa eponimoa da. Hemen Asopo ibai-jainkoaren emazte gisa agertzen da, nahiz eta askotan alaba gisa agertu.

²⁷ Akelao Etoliako ibai-jainkoa da, Greziako handiena.

²⁸ Herkulesek Akelao ibaiaren aurka borrokatu eta garaitu zuen.

²⁹ Kalidon erregearen alaba.

³⁰ Salmoneo erregearen alaba Tiro da; Enipeo maite zuen, Peneoren ibaidarra.

³¹ Tibur Lazioko hiri bat zen, egungo Tivoli.

³² Laomedonte Troiako erregeetako bat da, baina ez da Iliaren arbaso zuzena.

Hitz egiten amaitu zuen; neskatoak, begi zintzoak lurrean finkatuz, euri epelarekin bustitzen zuen paparra, negarrez. Hirutan saiatu zen ihes egiten eta hirutan gelditu zen ur-laster sakonaren aurrean, beldurrak korrika egiteko indarra kentzen baitzion. Baina tarte luze baten ostean, eta adatsa hatz arerioekin urratzen zuen bitartean, aho dardartitik soinu haserre batzuek egin zioten ihes:

‘Ai ene! Nahiago nuke nire hezurak gurasoen hilobian bildu eta gorde izan balituzte, oraindik dontzeila baten hezurak zirenean! Zergatik niri –duela gutxi bestala bainintzen– ezkontzeko dei egiten didate, ohoregabetua eta Troiako suarentzat arbuiatua banaiz? Zeri itxaroten diot, zital horren hatzak ezkon-nahaslea naizela dioen bitartean? Desagertu dadila izen txarraren gorritasunak markatutako aurpegia.’

Hori esan zuen emakumeak. Jantzia zabaldu zuen begi puztuen aurrean eta, etsita, ur bortitzera bota zuen bere burua. Ibai iheskorak bularrean jarri omen zizkion eskuak, eta legezko baimena eman omen zion ohea berarekin partekatzeko³³.

Pentsatzekoa da ere zu neskatoen batekin berotu zarela, nahiz eta baso eta adarrek zure erruak estali dituzten.”

“Hitz egiten dudan bitartean, ur-laster zabalekin handituz hazi da, eta haren ibilgua ez da gai heltzen zaion ur sakonari eusteko.”

“Zer daukazu nire aurka, amorratu horrek? Zergatik atzeratzen dituzu gure elkarren arteko gozamenak? Zergatik gelditzen duzu bidean doana, lotsagabe halakoak? Zer gertatuko litzateke zure lasterra zilegi balitz, ibai ezaguna izango bazina, famatua izango bazina mundu horietan? Ez daukazu izenik, ura sasoikako errekatxoetatik ateratzen baituzu, eta ez baitaukazu benetako iturburu edo bizilekurik; zure iturburuak euriteak eta elurte eragabekoak dira, negu nagiak ematen dizkizun aberastasunak; hotzaren aroan ur-lasterak lokatzez beteta bultzatzen dituzu, edo hautsez zanpatzen duzu lur sikua. Ibiltari egarriguren batek edan ahal izan al zintuen? Nork esan zizun esker oneko hitzekin ‘segi beti horrela’? Zure ur-lastera kaltegarria da abereentzat, eta are kaltegarriagoa landentzat; agian kalte hauek beste batzuei eragingo diete, niri neurek eragiten baitidate.”

Ai ene! Zoratuta nago, ibaien maitasun kontuak horri kontatzen ari bainintzen! Lotsa ematen dit arrazoirik gabe hain izen handiak aipatu izanak. Ez dakit zelan, gizagaixo honi begira nagoela, Akeloo eta Inako aipatu ditudan, eta zelan gai izan naizen, Nilo, zure izena esateko!

³³ Hau da, emazte legitimo egin zuen.

“Baina zuri, distirarik gabeko errekatxo horri, opa dizut eguzki kiskalgarriak eta negu beti sikuak izan ditzazula, zure merituen ordainetan.”

VII

Baina ez al da ederra, ez al da dotorea nire neskatoa, ez al da maiz izan, hori uste dut nik, nire desiren helburua? Momentu txarrean ahuldu nintzen, ordea, eta alferrik nireganatu nuen emakumea, etzanda geratu bainintzen, ohatze nagiaientzat errua eta zama hutsa banintz bezala. Ezin izan nuen, maiteak eta biok nahi genuen arren, nire iztarte ezdeusaren lanaz gozatu.

Eta hori gertatu zen, nahiz eta nire lepoan Traziako elurra baino zuriagoak ziren bolizko besoak jarri zituen, eta bere mihiarekin borrokatzen zuten musu bihurrituak eman zizkidan, eta bere izter jostalaria nirearen azpian jarri zuen, eta hitz gozoak esan zizkidan, eta bere gizona nintzela esan zidan, eta guztiontzako atseginak diren laudorioak esan zizkidan. Hala eta guztiz ere, nire zakil jardueragabeak, astaperrexil³⁴ izoztuarekin igurtzi balute bezala, alferrikako ahalegina egin zuen. Etzanda geratu nintzen, enbor bizigabe, estatua eta pisu ustel baten moduan, gorputza ala itzala³⁵ nintzen ziurtasunez jakin gabe.

Zer zahartzaro helduko zait, heltzen bazait, gaztaroak huts egiten badu bere egitekoetan? Ai ene! Lotsa ematen didate nire urteek! Zertarako balio dit gizona eta gaztea izateak? Nire neskalgunak ez zituen ez nire gaztaroa ez nire gizontasuna sentitu. Horrela altxatzen da ohatzetik betiereko apaizemea sugar jainkotiarretara hurbiltzeko, eta horrela altxatzen da arreba errespetatua maite duen nebaren ohatzetik. Duela gutxi, aldiz, birritan jarraian gozatu zuen nirekin Klide ilehoriak, hirutan Klito zurbilak, hirutan Libadek; Korinak ere gau labur baterako nahi izan ninduen, eta gogoratzen dut bederatzi aldiz iraun nuela.

Nire gorputza Tesaliako pozoiaz³⁶ sorginduta ahultzen al da? Nire zoritxarrean sorginkeriek edo belarrek kalte egiten al didate, edo sorgin batek nire izena idatzi al du argizari gorrian, edo orratz meheekin gibela ziztatu al dit³⁷? Zeres belar antzuaeren gainera erori da konortea

³⁴ Uste zuten astaperrexilak hanturaren kontrako efektua zeukala.

³⁵ Gorputzaren itzala heriotzaren ostean geratzen zen mamu moduko bat zen.

³⁶ Tesalia magiaren eta sorginen lurraldea da.

³⁷ *Defixio* magia-erritualean panpina bat ziztatzeko, mintu nahi zen pertsona ordezkatzeko zuena.

galduta sorginkeria baten erruz; iturri zaurituan ura gelditu da sorginkeria baten erruz; arteetatik ezkurak eta mahatsondoetatik mahatsak sorginduta jausten dira, eta fruituak eraitsi gabe erortzen dira. Zerk eragozten du nerbioak ere sorginkeriaz geldiaraztea? Agian nire iztarkea horregatik geratu da zirkinik gabe. Horri gehitu zitzaion gertatuagatik lotsa; lotsa horrek ere kalte egiten zidan; hori izan zen nire porrotaren bigarren arrazoia.

Baina a ze neskatoa ikusi eta ukitu nuen (besterik ez)! Bere tuniak ere horrela ukitzen du. Hura ukitzean, Piloskoa³⁸ gaztetu ahalko litzateke eta, Titonok adinak uzten dion baino indar handiagoa erakutsi ahalko luke. Nik neskatoa aurkitu nuen, baina berak ez zuen gizonik aurkitu. Zein erregu imajinatuko dut orain, desio berrituen aurrean? Gainera, uste dut jainko boteredunak damutu direla eman zidaten ongiarengatik, eman diodan erabilera txarrarengatik. Irrikatzen nuen, argi dago, hark niri harrera egitea: egin zidan; musuak ematea: eman nizkion; haren alboan egotea: egon nintzen. Zertarako balio izan zidan zorte horrek? Zertarako botereak, erabili ezin banuen? Zer naiz, ondasunak pilatzen dituen aberats zekena izateaz gain? Horrela dago sekretu-dibulgatzailea, ur-lasterraren erdian egarriz, eta eskura dauzka inoiz ukituko ez dituen fruituak. Horrela altxatzen al da inor goizean, neskato samurra utzita jainko sakratuen aurrera joateko?

Baina, hala uste dut nik, ez al da samurra, ez al zituen nirekin musu ederrak xahutu, ez al zituen ahalegin guztiak egin nire gogoa pizteko? Gai da laztanekin arte pisutsuak, altzairu gogorra eta haitz gorak suspertzeko; zalantzarik gabe, gai da bizidunak eta gizonak suspertzeko, baina orduan ni ez nengoen bizirik eta ez nintzen gizon. Zertarako balio du Femiok³⁹ belarri gorren aurrean kantatzeak? Zertarako balio dio margolan batek Tamiras⁴⁰ gizajoari? Baina zein gozamenekin ez zen isilpean ibiliko! Zelako jarrerak ez zituen imajinatu eta prestatuko! Baina nire zakila erdi hilda geratu zen, bezperako arrosak baino zimelago, nire lotsagarri.

Hara! Orain ezorduan hartu du indarra eta indartsu bilakatu da; orain lan egin eta borrokatu nahi du. “Zergatik ez zara lotsatuta hor botata geratzen, nire gorputzeko atalik txarrena? Horrela engainatu ninduzun promesekin. Zuk zure nagusia engainatzen duzu; zure erruz armagabe harrapatu naute eta galera handiak izan ditut, lotsagarriro.”

³⁸ Nestor da Pilosko erregea, adineko elokuenta eta jakintsuaren paradigma.

³⁹ Femio Itakako kantari ospetsua da.

⁴⁰ Tamirasek, Traziako aedoak, Musen kontra egin zuen. Garaitu zuten eta ausardia itsutasunarekin ordaindu zuen.

Nire neskatoak ez zion muzin egin are eskua astiro hurbilduz suspertzen saiatzeari ere. Baina ikusi duenean ez dagoela inola ere tentetzeko modurik, eta, bere egitekoaz ahaztuta, erorita dagoela, esan dit:

“Zergatik egiten didazu iseka? Burugabe halakoa, norik agindu zizun gorputza gogorik gabe botatzeko nire ohatzean? Artilea zulatuz madarikatu zaitu Eeako sorgin batek, edo nekatuta zatoz beste maitasun kontu batengatik.”

Ez zen luzatu: tunika lasaiaz estalita egin zuen salto (zein ederra ortozik korrika irtetea!) eta, neskameek ukigabe zegoela jakin ez zezaten, uretan garbituta disimulatu zuen laidoa.

VIII

Eta oraindik egongo da bizibide nobleak errespetatzen dituenik eta poema samurrek⁴¹ balioa dutela uste duenik? Garai batean talentua urrea baino baliotsuagoa izan zen, baina orain pobre izatea arruntasun handia da. Nire ugazabandreak oso gustuko izan ditu nire liburuak: nire liburuek baimena daukate nik baimenik ez daukadan lekuetan sartzeko; asko laudatu ninduen: laudorioen artean atea itxi zidan; irainduta noa, batera eta bestera, nire talentuarekin. Hara non ni baino gehiago atsegin duen aberats berri bat, zaurien poderioz irabazitako ondasunekin⁴², zalditeriako ofizial bat, odolaz loditua.

“Maitea, horrelako gizon bat besarkatu ahal duzu zure beso ederrekin? Maitea, horrelako gizon baten altzoan etzan ahal zara? Badaezpada ere esango dizut: buru hori kasketak estali ohi zuen; zure zerbitzura dagoen gerriak ezpata bat eramane ohi zuen; ezkerreko eskuak, urte berantiarrean ondo egokitzen ez denak, ezkutua eramane zuen; ukitu iezaiozu eskuineko eskua: odolez blai egon zen. Norbait hil duen eskuineko esku hori ukitu dezakezu? Ai ene! Non dago zure bihotz sentibera hori? Begiratu orbanak, antzinako guduen aztarnak: gorputza erabilita irabazi du daukan guztia⁴³. Agian kontatuko dizu zenbat gizoni ebaki dien lepoa: horrelakoak aitortzen dituzten eskuak ukitzen dituzu, zeken halakoak? Nik, Musen eta Feboren apaiz xahuak, alferrik kantatzen dut nire poema zure borta sendoen aurrean.”

⁴¹ Hau da, maitasun poesia.

⁴² Soldadu mertzenario erretiratua, aberastasun jakin batera heldu denez, zaldun egin ahal izan da.

⁴³ Gorputza erabiltzen den lanenganako mespretxua erakusten du.

Ikas ezazue, abisatuta zaudeten horiek, ez alferrok dakizkigun gauzak, baizik eta lerro ikaratien eta kanpamentu ankerren bidea jarraitzen; eta, bertso ederrak ikasi beharrean, atera ezazue zenturioien gradurik altuena: nahi izango bazenu, Homero, horrelako pribilegioa izan ahalko zenuke.

Jupiter, urrea baino gauza boteretsuagorik ez dagoela ohartarazita, dontzeila bat okerbidera eramateko ordaina⁴⁴ izan zen. Preziorik ez zegoen bitartean, aita gogorra zen, neska zorrotza, atea brontzezkoak, dorrea burdinazkoa; baina, ezkon-nahasle amarrutsua irabazi gisa heldu zenean, neskak altzoa zabaldu zion, eta, amore emateko aginduari jarraituz, amore eman zuen.

Bestalde, Saturno zaharrak zeruan boterea zeukanean, lur sakonak aberastasun oro ezkutatzen zuen ilunpean: lurra infernura bultzatu zituen brontzea eta zilarra eta burdin puskak urrearekin batera, eta ez zegoen lingoterik inon. Baina gauza hobeak ematen zituen: garaua golde-mutur makur barik, eta fruituak, eta arte zulatuan ezta zegoen. Inork ez zuen lurra golde gogorarekin zulatzen; neurtzaileak ez zituen lursailen mugak markatzen; gizonek ez zituzten arraunak sartuta itsaso nahasiak zulatzen: garai hartan, itsasertza zen bideen amaiera hilkorrentzat.

Zeure aurka izan zinen maltzurra, gizakien izaera, eta zeure kalterako izan zinen burutsuegia. Zer irabazten duzu hiriak dorredun harresiekin inguratuz? Zer irabazten duzu armetara ados ez dauden eskuak hurbiltzearekin? Zer zerikusi daukazu ozeanoarekin? Lurrarekin pozik behar zenuen! Zergatik ez duzu zerua zure hirugarren jabetza bihurtzen? Ahal duzun heinean, zerua ere nahi duzu: tenpluak dauzkate Kirinok, Liberrek eta Altzidesek⁴⁵, eta duela gutxi, Zesarrek. Lurretik, laborearen orde, urre trinkoa ateratzen dugu; soldadua odolarekin irabazitako aberastasunen jabea da; senatua itxita dago pobreentzat, ondasunek ahalbidetzen baitituzte karguak: handik irteten da epaile zaputza, handik zaldun zorrotza.

Guztiaren jabeak izan daitezela: Zelaia eta Foroa⁴⁶ haien mendeko izan daitezela, eurek egin ditzatela bakea eta gerra odoltsuak; gutxienez, ez dezatela, askonahiz, gure maitasunaren enkanteetan gehiegi eskaini, eta (hau nahikoa da) zer edo zer utz diezaietela pobreei.

Orain, aldiz, emakume bat sabiniar apaindura gutxikoen parekoa bada ere, asko eman ahal dionak bereganatzen du, harrapakina izango balitz bezala. Niri zaindariak ixten dit bidea; nirekin dagoenean beldur dio senarrari; nik ordaina emango banu, bata zein besteak etxe

⁴⁴ Jupiterrek Danaez gozatu zuen urrezko euriaren formarekin; handik jaio zen Perseo.

⁴⁵ Kirino (Romulo), Altzides (Herkules) eta Liber (Dionisio) zerura heldu dira jainkoespenaren bidez.

⁴⁶ Marteren Zelaia eta Foroa Herri-biltzarraren eta prozesu judizialen egoitzak ziren, hurrenez hurren.

osoa utziko lidakete. Ene bada! Maitale gutxietsien jainko mendekatzailereren batek hauts bihurtuko balitu hain txarto irabazitako aberastasunak!

IX

Memnon amak deitoratu bazuen, amak deitoratu bazuen Akiles⁴⁷, eta patu tristeek hunkitzen badituzte jainkosa handiak, aska ezazu, Elegia negartia, zure ile errugabea⁴⁸. Ai ene! Benetakoa izango da zure izena orain, gehiegi agian! Tibulo, zure gisako poeta hori, zure ohorea, sutan dago –gorpu hutsala– ondo jarritako su-meta baten gainean. Ikusten duzunez, Venusen semeak iraulita darama buiraka, eta apurtuta arkuak, eta garrik gabe zuzia. Begira zelan dabilen: hego ahulekin pena ematen du eta bular babesgabea kolpatzen du esku okerrarekin. Malkoek lepoan banatuta dauden ileak sikatzen dizkiote, eta ahoak burrunba egiten du negar-zotinka. Esaten dute horrela irten zela Julio ederra zure etxeetatik, haren neba Eneasen⁴⁹ hobiratzean. Eta Venusen estutasuna, Tibulo hilurren zenean, ez zen mutikoari basurde basatiak izterrondoa urratu zionekoa baino txikiagoa izan.

Baina poetoi esaten digute sakratuak eta jainkoen maiteak garela, eta batzuek botere jainkotiarra dugula ere uste dute. Izan ere, desorduko heriotzak sakratua den guztia profanatzen du; guztien gainean jartzen du esku beltza. Zertarako balio izan zion aitak Orfeo Ismarokoari⁵⁰? Zertarako amak⁵¹? Zertarako kantuararekin basapiztiak geldiarazi izanak? Era berean, esaten da aitak Meoniako basoaren sakonean lira gogogabearekin ‘ai, Lino!’ kantatzen duela, ‘ai, Lino⁵²!’. Gehitu zure semea Meoniaren semeari⁵³; harengandik abiatzen da Pierako ura, iturri amaigabea balitz bezala, poeten ahoak ureztatuz: hura ere ito zuen azkenengo egunean Averno⁵⁴ beltzean; bertsoek baino ez diote ihes egiten su biziari. Poeten lanak, Troiako balentrien famak eta azpikeria gautarrarekin jositako oihal amaigabeak irauten dute.

⁴⁷ Aurora Memnonen ama eta Tetis Akilesena.

⁴⁸ Hiletetan emakumeek ilea aske eramaten zuten, dotorezia alde batera utzita.

⁴⁹ Amodio eta Eneas Venusen seme-alabak dira.

⁵⁰ Ismaro Traziako mendia da, eta han bizi izan zen Orfeo.

⁵¹ Apolo da aita eta Kaliopé ama.

⁵² Apolok Lino semearen heriotza deitoratzen zueneko garrasia.

⁵³ Homero.

⁵⁴ Averno Kanpaniako lakua da, eta infernurako sarrera zela uste zen.

Bai Nemesisek, bai Deliak iraungo duen izena izango dute: batak duela gutxiko ahalegina, besteak lehen maitasuna.

Zertarako balio dizuete zeremoniek? Zertarako balio dizuete orain Egiptoko sistroek? Zertarako ohe bakarti batean bananduta lo egiteak? Zoritxarreko patuak pertsona onak eramaten dituenean, burura etortzen zait (barkatu nire aitormena) jainkorik ez dagoela.. Bizi zaitez jainkozaletasunean: hilko zara; bete itzazu jainkoen moduan errituak: bete ondoren, heriotza latzak tenplutik hilobi sakonera eramango zaitu arrastaka. Fidatu poema onekin: Tibulo daukazu han, zurrun; orain geratzen den guztia kutxa txiki batean sartzen da. Sugarrek eraman zintuzten, poeta santua, zure bihotza janari gisa hartzeaz ikaratu gabe?

Sakrilegio handi hori onartu zutenek jainko ukiezin tenplu distiratsuak erre ahal izan zituzten! Erizeko gotorleketan ostatu hartzen duen aurpegia bueltatu da; batzuek ere esaten dute ezin izan ziela malkoei eutsi.

Baina hobea da hori, eta ez feaziarren herriak lur ziztrinean inork jakin gabe lurperatu izana⁵⁵. Hemen, gutxienez, amak begi hezeak itxi zizkion ihes egiten ari zenari, eta haren errautsen gainean jarri zuen eskaintza; hemen arrebak ama gizajoaren tristura partekatu zuen orraztu gabeko ilea zarrastatuz, eta Nemesisek eta bere aurrekoak musuak zure musuekin batu dituzte, eta ez zuten sua bakarrik utzi.

Deliak, joan zenean, esan zuen: “zorte handiagorekin maitatuko ninduzun: bizirik egon zinen, ni zure sua izan nintzen bitartean”. Nemesisek erantzun zion: “zergatik ematen dizu min nire minak? Hil aurreko momentuan niri heldu zidan, esku margularekin”.

Gure izena eta itzala baino zeozer gehiago geratzen bada, Eliseoko haranean egongo da Tibulo. Haren bidera irtengo zara, Katulo jakintsua, huntzez koroaturiko betondo gaztearekin, Kalvo⁵⁶ adiskideaz lagunduta; baita zu ere, Galo⁵⁷, odol eta hats xahutzailea, faltsua bada lagun bati traizio egin zeniolako akusazioa. Zure itzalak lagun egiten die, gorputzaren itzalen bat geratzen bada oraindik; zintzoen kopurua handitu zenuen, Tibulo fina. Hezurrak, hartu atsedean lasai –hau da nire otoitza– kutxaren babespean, eta lurra ez dadila izan astuna zure errautsen gainean.

⁵⁵ Tibulo gaixorik egon zen Korzira uhartean, gaur egungo Korfun.

⁵⁶ Lizinio Kalvo, poeta neoterikoetako bat.

⁵⁷ Kornelio Galo poeta.

X

Urtero bezala, Zeresen jaiaren garaia heldu da⁵⁸; nire neskatoa ohatze hutsean aparte oheratu da.

“Zeres ilehoria, buruxkaz koroatutako ile finduna, zergatik eteten dituzu gure poztasunak zure jaiari? ‘Eskuzabal’ esaten dizute, jainkosa, herri guztiek, eta ez dago zekenagorik gizonen ondasunekin”.

Aspaldi nekazari zapaztoak ez zuen garaua txigortzen eta lurrak ez zuen “larrain” hitza ezagutzen; bestalde, arteek, garai primitiboetako orakuluek⁵⁹, ezkurak ematen zituzten: horiek ziren, gara samurreko belarrekin batera, janaria. Zeres lehena izan zen haziari handi egiten irakasten, eta igitaiarekin ile koloretsuak moztu zituen⁶⁰; lehena izan zen zezenak lepoan uztarria eramatera behartzen, eta golde-hortz makurrarekin lurra nahasi zuen.

Norbaitek uste al du maiteminduen malkoekin pozten dela, eta merezi duen gurtza jasotzen duela bereiz lo egitearen saminarekin? Ez da basatia, landa emankorrek oso atsegin dituen arren, eta bihotza ere ez dauka maitasunetik aske. Kretako jendea da horren lekuko, eta ez du Kretako jendeak beti gezurra esaten⁶¹: Kreta, Jupiter hazi zuelako harro dagoen herria. Han, munduko gotorleku izartsua gobernatzen duenak, ume txikiak, haren esnea edaten du aho samurrarekin; oso fidagarria da lekukoa⁶², umetxoak goraiatzan baitu; Zeresek onartu beharko du bere oker ezaguna.

Kretako jainkosak, Ida mendian, Jasio⁶³ ikusi zuen basapiztiak bizkarretik zauritzen esku trebarekin; ikusi zuen, etaugarra muin samurretan gizendu zenean, alde batetik lotsak eta bestetik maitasunak tiratzen zion. Maitasunak lotsa garaitu zuen: ildaskak sikatzen ikusten zenituen, eta ereindakoak gutxi baino ez zuen eman; aitzurrek, trebetasunez mugituta, lur sailak kolpatzen zituzten arren, eta golde-hortz okertuak lur gogorra hautsi arren, eta haziak soro zabaletan berdin-berdin jausi arren, hutsala zen nekazari engainatuaren itzaropena. Soroaren jabea zen jainkosa basoan barrena urruntzen zen: buruxkadun txirikordak ile luzetik

⁵⁸ Abuztu hasieran ospatzen da.

⁵⁹ Greziarrentzat Zeusen Dodonako (Epiro) orakulua zen zaharrena.

⁶⁰ Hau da, buruxkak.

⁶¹ Errefrauetan kretarrak faltsuak zirela esaten zen.

⁶² Jupiter Kretako Ida mendian jaio eta hazi zen.

⁶³ Zeresek eta Jasiok Pluto sortu zuten.

jausi zitzaizkion. Kretak baino ez zituen fruituak eman urte emankorreen: jainkosa pasatzen zen leku guztiak uzta bihurtzen ziren; Ida ere, basoz betetako lurraldea, galsoroz zuritu zen, eta basurde basatiak basartean batzen zuen uzta. Minos⁶⁴ legegileak horrelako urte gehiago desiratu zituen bere onerako; Zeresen maitasunak luzaroan irautea nahi izan zuen.

“Bakarrik lo egin izana, bere garaian zuk ere pairatu zenuena, jainkosa ilehoria, orain nik sufritu behar dut zure jaietan. Zergatik egon behar naiz triste zure alaba aurkitu baduzu⁶⁵ eta hark gainetik Junorena baino ez daukan erresuma gobernatzen badu⁶⁶?”.

Jai egunek maitasuna, kankak eta ardoa eskatzen dute: horiek dira gure jainko jaunei eskaini behar dizkiegun opariak.

XI A

Gauza asko jasan ditut, baita luzaroan jasan ere; hutsek nire pazientzia gainditu zuten: alde egin nire bihotz nekatutik, maitasun mingarria! Askatasuna eskuratu nuen eta kateetatik ihes egin nuen, eta lotsa ematen dit lotsarik izan gabe jasan nuena jasateak. Irabazi dut eta Amodio menperatua zapaltzen dut: nire bekokira, berandu bada ere, erasorako indarra heltzen da. Eutsi eta jarraitu: min hori egunen batean aprobetxatu ahalko duzu; zuku mingotsak askotan laguntzen dio akitua denari.

“Hortaz, nik, hainbestetan atetik bota duzunak, gizon librearen gorputz hau⁶⁷ lurrean jartzea onartu dut? Hortaz, nik, besarkada batean hartuta zeneukan horren ohoretan, esklaboa banintz bezala etxe itxiaren aurrean egin nuen guardia? Ikusi nuen zure maitale nekatua ate aurrean bizkarra lehertuta eta zerbitzuz kanpo agertu zenean; bestalde, hori jasangarriagoa da, berak ni ikustea baino: pasa dezatela nire etsaiek nik pasatu nuen lotsa! Noiz ez nintzen, bada, zure alboan jarri, zaindariarena eginez, senarrarena eginez, laguntzailearena eginez? Hain zuzen nire ondoan zinelako zinen jendearen gustuko: nire maitasuna izan zen, askorentzat, zu

⁶⁴ Minos Kretako lehen erregea eta legegilea izan zen. Radamanto anaiarekin eta Eakorekin batera, epaile izan zen Plutonen lurpeko erresuman.

⁶⁵ Plutonek Zeresen alaba Proserpina bahitu zuen.

⁶⁶ Proserpinak, Plutonen emazteak, lurpeko munduan agintzen zuen; Junok, Jupiterren emazteak, lurrean eta zeruan.

⁶⁷ Gizon librea dela oroitzen duenean gogoratzen du esklaboa izan zela maiteminduta zegoenean.

maitatzeko arrazoia. Zertarako kontatu zure mihi hutsalak kontatzen zituen gezur iraingarriak, eta nire kalterako jainkoen aurrean eginiko zin-egite hautsiak? Zertarako gazteen oturuntzetako zeinu sekretuak, eta zifratutako karakterez egindako esaldi disimulatuak? Neskatoa gaixorik zegoela esan zidaten: zoroen pare hasi nintzen lasterka, eta heldu nintzenean ikusi nuen nire aurkariarentzat ez zegoela gaixorik. Askotan sendotu nintzen, hori eta kontatzen ez dudana jasateko: bilatu nire ordeztu horrelako irainak jasango dituen norbait. Eskaintzetako txirikordaz koroatutako nire txalupak axolagabe entzuten du itsasoaren ur harrotua⁶⁸. Utz iezaiozu garai batean boteretsuak ziren lausenguak eta hitzak alferrik galtzeari: ez naiz garai batean izan nintzen inozo hura.”

XI B

Mokoka ari dira eta nire bihotz arinetik kontrako aldeetara tiratzen dute maitasunak eta hisiak, honantz batek, eta harantz besteak; baina seguruenik maitasuna irtengo da garaile; [gorrotatuko dut ahal badut; ezin badut, maitatu egingo dut, nire borondatearen kontra bada ere: zezenak ere ez du uztarria gustuko, eta hala ere gorroto duena darama gainean].

Haren azpikeriatik ari nahiz ihesean, baina edertasunak atzera nakar; haren izaeraren akatsak gorroto ditut, gorputza maite dut. “Horrela ni ezin naiz ez zu gabe ezta zurekin ere bizi, eta uste dut nik ere ez dakidala zer nahi dudan. Nahiago nuke zu ez izatea hain ederra, edo ez hain lotsagabea; hain taxu ederra ez dator bat hain jokabide makurrarekin.” Haren ekintzek nire mespretxuak merezi dituzte; aurpegiak nire maitasuna erregutzen du. Gizajoa ni, gehiago balio baitu berak bere akatsek baino! “Hartu atsedean, ohatze partekatuaren legeez eskatzen dizut, euren hitza kontuan ez hartzeko hainbestetan prest egoten diren jainko guztiez, niretzako jainkotasun boteretsu batek beste balio duen zure aurpegiak, nireak liluratu dituzten begi horietaz! Zaren modukoa zarela, beti izango zara nirea; aukeratu bakarrik ea nahi duzun nik ere nahi izatea, edo beharturik gustuko izango zaitudan”.

Baina haize-oihalak zabaldu eta eramango nauen haizea aprobeixatu nahi dut, eta nahi izan ez arren, maitatzera behartua izan nahi nuke.

⁶⁸ Itsaso harrotua maitasun sutsuaren ikurra da; ortura heltzen den txalupak maitasun istilutsua amaitu dela esan nahi du.

XII

Zein egunetan izan zineten, hegazti beltzok, betiko maiteminduta dagoenari iragarpen tristeak kantatzen? Zein izarrek pentsatuko dut egingo diola aurka nire zoriari? Zein jainkok jasoko ditu nire kexak, nire kontra gerra egiteagatik? Duela gutxi 'nirea' deitu nuena, ni bakarrik maitatzen hasi nintzena, susmatzen dut askorekin konpartitu beharko dudala.

Oker nago edo nire liburuengatik egin zen ezagun neskatoa? Horrela izan behar da; nire talentuari esker agertu da jendaurrean. Normala da; zertarako egin nuen haren edertasunaren aldari? Nire erruagatik bihurtu da neskatoa salerosgai. Jendeak gustuko du ni naizelako haren artekaria, harenganaino heltzen dira maitaleak ni naizelako gida, haren atea zabalik daude nire eskuen erruz. Bertsoek laguntzen duten ez dakigu; kalte egin zidatela argi dago: gaizkinahia ekarri zieten nire ondasunei.

Tebas han zegoenean, Troia han zegoenean, Zesarren balentriak⁶⁹ han zeudenean, Korinak baino ez zuen nire talentua piztu. Oxala Musak aurka nituela hasi izan banitu bertsoak, eta Febok hasieran utzi izan balu! Bestalde, ez da ohikoa poeten aitormenak aintzat hartzea: nahiago izango nuen nire hitzek pisu gutxiago izan balute.

Nigatik, Eszilak⁷⁰, aitari ile kuttunak ostu zizkionak, txakur basatiak gordetzen ditu iztarteko ilajeak; hegoak jarri nizkien oinei, sugeak ileari; Abanterenekoa zaldi hegodunean doa garaile⁷¹. Nik Tizio⁷² eskerga handitu nuen, eta hiru mutur jarri nizkion suge-txakurrari⁷³; Enzelado atera nuen mila besoekin tiro egiten zuela, baita bitariko dontzeilak⁷⁴ sorgindutako heroiak ere; Itakako zahagietan giltzaperatu nuen Eoloren haizea; Tantalo⁷⁵ salataria egarri da

⁶⁹ Gai epiko posibleak: Zazpiak Tebasen aurka, Troiako gerra eta Augustoren balentria.

⁷⁰ Eszila emakume beldurgarria zen: gorputzaren erditik beherako zatia sei txakur basatik osatzen zuten. Gainera, beste Eszila bat dago, Niso Megarakoaren alaba. Horrek aita garaiezin egiten zuen urrezko ilea moztu zuen. Biak nahasita ageri dira hemen.

⁷¹ Perseok, Abanteren birbilobak, lepoa moztu zion Medusari. Haren lepotik jaio zen Pegaso, zaldi hegoduna.

⁷² Tizio erraldoia zen, Leto jainkosa eraso zuena.

⁷³ Zerbero, hiru buruko txakurra, Hadeseko zaindaria.

⁷⁴ Sirenak.

⁷⁵ Tantalo betiko gose eta egarri izatera zigortu zuten, jainkoen oturuntzetan entzundakoak gizakiei kontatzeagatik.

korrontearen erdian; Niobe⁷⁶ harri bihurtu genuen, dontzeila hartz-eme⁷⁷; Itis traziarrari kantatzen dio hegazti zekropidak⁷⁸; Jupiter txori zein urre bihurtzen da, edo dontzeila bizkarrean daramala ura zeharkatzen du, zezen bihurtuta. Eta zertarako aipatu Proteo, eta hortz horiek, Tebaseko haziak? Zertarako esan ahotik sua botatzen zuten idiak egon zirela? Eta zure arrebei, gurdizaina, anbar-malkoak zeriela masailetatik? Eta orain itsasoen jainkoak direla txalupak izan zirenak, eta egunak ibilbidea aldatu zuela Atreoren mahai ankerren aurrean, eta haitz gogorrak joan zirela liraren soinua zetorren lekura?

Poetaren lizentzia emankorra neurrigabekeria bukatzen da; ez du inoiz bere hitza egia historikoarekin lotzen: nire neskato maitea funtsik gabe laudatzen zuela iduri behar zuen; zuen sineskortasuna nire kalterako da orain.

XIII

Nire ezkontidea falisko ortuzainen artean jaio zenez, zuk, Kamilo⁷⁹, garaitu zenituen harresietara hurbildu ginen. Apaizemeak jai kastoak, joko jendetsuak eta bertako bigantxa ari ziren prestatzen, Junoren ohoretan. Erritu horiek ezagutzea egonaldiaren ordain handia zen, hara joateko bide deseroso eta aldapatsu bat igaro behar bazen ere.

Baso zahar eta gerizpetsu bat dago han, zuhaizti itxiduna; begira: onartuko duzu numen bat bizi dela leku hartan. Aldare batean erreguak eta jainkozaleen promesetako intsentsua jasotzen da; antzinako eskuek eraiki zuten aldarea, arterik gabe. Txirulak errituaren doinua iragartzen duenean, prozesioa honaino heltzen da urtero, eguzki-oihalez estalitako kaleetatik.

Jendetzaren txaloen artean daramatzate belar faliskodun zelaietan hazitako bigantxa zuriak, eta oraindik bekokiko mehatxuagatik beldurgarriak ez diren zekorrak, eta txerrikorta apaletik irtendako txerri bat –prezio baxueneko opagaia–, eta multzoko joalduna⁸⁰ adarra betondo

⁷⁶ Niobek zazpi seme eta zazpi alaba izan zituen. Leto Apolo eta Dianaren ama baino gehiago zela aldarrikatu zuen eta horiek geziekin hil zituzten Nioberen seme-alabak. Jainkoek Niobe harri bihurtu zuten.

⁷⁷ Kalisto dontzeila, Herak bihurtu zuen hartz-eme.

⁷⁸ Prokne urretxindor bihurtu zuten.

⁷⁹ Furio Kamilok Falerii hiria (egungo Civit  Castellana) hartu eta veyestarrak kanporatu zituen zuen Kristo aurreko 395. urtean.

⁸⁰ Hau da, akerra.

gogorrean okertuta duela; antxume bat bakarrik mespretxatu du jainkosa nagusiak, izan ere, antxume batek salatu omen zuen basoaren sakonean, eta hargatik hasitako ihesa bertan behera utzi behar izan zuen⁸¹. Orain ere mutikoek salatariari jarraitzen diote, eta beraren gorputza da saria azkonaz zauritzea lortzen duenarentzat.

Mutikoek eta neskato lotsatiek alfonbrekin estaltzen dituzte kale zabalak, jainkosa handik pasatu behar baita. Dontzeilen adatsek urrearen eta bitxien pisuari eusten diote, eta tunika ederrak urre-koloreko oinak estaltzen ditu⁸²; arbaso grekoen ohiturari jarraituz, jantzi zuriekin estalita, buruaren gainean tradiziozko objektu zeremonialak daramatzate. Jendetza isilik dago prozesio distiratsua heltzen denean, apaizemeen pausoei jarraituz. Segizioaren irudiak argostarrak⁸³ dira: Agamenonen heriotzaren ostean, Halesok atzean utzi zituen hilketa eta aitaren ondasunak, eta, lurrez eta itsasoz, ihesean, alderrai ibili ostean, zorioneko eskuekin eraiki zituen harresi altu horiek. Junoren ohoretan egiten diren erritu sakratuak irakatsi zizkien bere menpeko faliskoei: erritu horiek nire alde egon daitezela beti, baita herriaren alde ere.

XIV

“Ederra zarenez, ez dut errefusatzeko zu desleiala izatea, nire zoritxarrerako nik hori ezinbestean jakin behar izatea baizik; nire kritikek ez dizute lotsa onekoa izateko eskatzen, aldiz, disimulatu saiatzeko eskatzen dizute. Ez dela izan esateko gai dena ez da desleiala, eta errua aitortzeak soilik ematen dio ospe txarra emakumeari. Zer zorakeria da gauak gordetzen duena egun-argitan aldarrikatzea, eta sekretuan egiten dituzun azpikeriak jendeari kontatzea? Meretrizak bere gorputza hiritar ezezagunarekin batu aurretik, sarraila itxi eta jendea botatzen du; zuk ekarriko duzu ahotara zure okerbideen fama txarra eta zuk egingo duzu zure delituaren salaketa? Izan zaitez azkarragoa, edo, gutxienez, egin itzazu lotsa onekoaren plantak, nik pentsatzeko prestua zarela, izan ez arren. Jarraitu egiten duzuna egiten, baina egiten duzula esan gabe, eta ez zaitez lotsatu nire aurrean gauza egokiak esatean.

⁸¹ Inguru horretan bakarrik egiten den errituaren azalpen mitikoa; Junok Jupiterren ezkontzeko eskaerari ezetz esan zionekoa da.

⁸² Sandaliek ere urrezko apaingarriak izaten zituzten.

⁸³ Hau da, Argoskoa: Agamenon zen hango erregea, baina hil egin zuten. Haren seme Halesok Italiara ihes egin zuen eta Falerii sortu zuen. Halesok Eneasi egin zion kontra Italian, eta Palantek hil zuen.

Perbertsioak behar duen lekua dauka: bete ezazu mota guztietako gozamenekin eta handik urrun geratu dadila lotsa. Handik irteten zarenean, lizunkeria urrundu dadila eta utzi neurrigabekeria zure ohean. Han ez izan eragozpenik tunika kentzeko eta zure izterraren gainean beste izter baten pisuari eusteko; han sartu dadila mihia purpuradun ezpainen artean eta bat-egiteak amodioa konposatu dezala hamaika modutan; han ez daitezela doinu eta hitz atseginak gelditu, eta oheak dar-dar egin dezala astindu jostalariekin. Har ezazu tunikarekin gaizkiaren beldur denaren itxura, eta zure lotsak jardun lizuna gezurtatu dezala.

Nahas ezazu jendea, nahas nazazu ni, utz iezadazu ezer jakin gabe bizitzen eta sineskortasun inozenteaz gozaten. Zergatik ikusten ditut hain sarri eramaten eta ekartzen dituzten oholtxoak? Zergatik dago ohea alde honetan eta beste horretan harrotua? Zergatik ikusten dut ilea gauaren joanak eskatzen duen baino nahasiago, eta lepoa hortz-markekin? Zure hutsegiteak nire begien aurrean jartzea baino ez zaizu falta! Ez badakizu zure ohoreari kontuak ateratzen, atera kontuak niri gutxienez.

Konortea galdu eta hiltzen naiz, bekatuak aitortzen dituzun bakoitzean, eta izerdi hotzeko tantak irristatzen dira nire gorputzetik. Batean maite dut, eta bestean alferrik gorroto dut, zu maitatzea nahitaezkoa baita; eta hurrengoan hil nahiko nuke, baina zurekin batera. Ez dut ezer ikertuko, zalantzarik ez izan, eta ez dut ezkututzen didazuna bilatuko, engainatzen uztea izango baita oparia. Hala ere, ustekabeen harrapatzen bazaituzte delitua egiten duzun bitartean eta nire begiek gauza lotsagarriak ikusi behar badituzte, argi eta garbi ikusten dudana, argi eta garbi esan ez dudala ikusi: nire begiek arrazoia emango diete zure hitzei.

Zuretzat erraza da palmondoa irabaztea euren burua konbentzitu nahi dutenak konbentzitzuz, zure mihia ‘ez dut ezer egin’ esateaz oroitzen bada. Epaia bi hitzekin irabazi ahal baduzu, justizian ez bada ere, irabaz ezazu egokitu zaizun epailearengatik”.

XV

“Bilatu beste poeta bat, amodio samurren ama: nire elegiak azkenengoz ari dira zirkuko zutoinaren bira ematen; neuk idatzi nituen, Pelignoko landetako ume honek, (eta nire mizkeriek ez zidaten destaina egiten) eta, zeozertarako balio badu, nire birraitona-amonetatik

datorren leinuaren oinordeko zahar honek, ez zaldun izatera arestian, gerraren nahastean, helduriko batek⁸⁴.

Mantua Virgiliorengatik pozten da, Verona Katulorengatik, Pelignoko herriaren ohorea naizela esango dute, Erromak, larri, oste aliatuei beldur izan zienean, askatasunarengatik gerra zintzoan jardun behar izan zuen Pelignoko herriarena⁸⁵. Eta ibiltariren batek, lautadan lursail gutxi batzuk dituen Sulmona hezearen harresiei begiratzean, hauxe esango du: ‘zuri, txikerra izan arren, hain poeta handia emateko gai izan zaren horri, handi esaten dizut.’

Mutiko dotoreak eta mutiko dotorearen amak, Amatuntekoak⁸⁶, kendu zuen ikurrak nire lursailetatik⁸⁷; Lio⁸⁸ adardunak tirso astunagoari eragiten dio: zaldi indartsuen gainean tarte luzeago batean lauhazkatu behar dugu. Elegia mantsoak, Musa emankorra, agur; ni hil ondoren, nire lanak bizirik iraun behar du’.

⁸⁴ Poeta harro dago zaldun-ordenara sartu diren aberatsetakoren bat ez delako, izan ere, horietako asko mertzenario gisa egin dira aberats.

⁸⁵ Kristo aurreko 91. eta 88. urteen arteko gizarte gerra. Italiako aliatuak Erromanen aurka borrokatu ziren, hiritartasun osoa lortzeko.

⁸⁶ Venusek kultu-gune bat zeukan Amatunten, Txipren.

⁸⁷ Poetak Venus eta Kupidoren soldadu izateari uzten dio.

⁸⁸ Lio Bako da, adarrekin.

BIBLIOGRAFIA

Bilbao Telletxea, Gidor, 2002, *Latin-literaturarako sarbidea. Idazleak eta idazlanak*, Bilbo, Udako Euskal Unibertsitatea.

Bornecque, Henri, 1968, *Ovide. Les Amours*, Paris: Les Belles Lettres.

González Iglesias, Juan Antonio, 1997, *Ovidio: Amores. Arte de amar*, Madril: Ediciones Cátedra.

Ramírez de Verger, Antonio & Francisco Socas, 1991, *Ovidio. Obra amatoria I: Amores*, Madril: Alma Mater - CSIC

Showerman, Grant, 1914, *Ovid: Heroides. Amores*, Londres: Loeb Classical Library.